

Sagarraren kultura sustatzeko museoa eskualdean bertan dago

Sagardoetxea museoa orain hilabete gutxi Astigarragan zabaldu zuten. Sagardoaren historiaz gehiago jakiteko aukera interesgarria da.

Udazken hotzak, sagar gutxiago eta txikiagoak ekarri ditu, baina kalitate handiagokoak. Sagardo aromatikoa, fruitu freskoa eta gorputza duena. Halakoa omen da, aurten dasta daitekeen sagardo berria. Baina sagardogintzaz zenbat dakigu? Eskaintza interesgarri baten bidez jakin daiteke. Astigarragako Sagardoetxea museora gerturatuta.

Urte osoan zabalik dagoen museoa, sagardo ekoizpenaren nondik norakoak ezagutzeko aukera dago, zelaian bertan landaketatik hasita. Eta gero, museo barruan jarraituta, erakusketa eta ikus-entzunezkoen bidez. Ibilaldia, sagardo goxoa probatuz amaitzen da. Urtean zehar ere, sagardoaren ekoizpen prozesuari lotutako garaian garaiko erakustaldiak antolatzen dituzte, beste hainbat ekintza osagarriekin batera.



Astigarragako herrigunean, Kultur Etxearen ondoan, dago Sagardoetxean.

BISITA GIDATUAK

Han dioten bezala, sagardotegi batera joan aurretik plan polita da lehenbizi Sagardoetxea eta ondoko sagasti ederrak ezagutzea. Ibilaldi gidatuak antolatzen dituzte bertan. 3,5 euroren truke bertako txokoak ezagutu daitezke. Doan 10 urtez azpikoentzat. Hauek, garaian garaiko ordutegiak: Astelehenetan itxita.

Astearte-ostirala: 15:00-19:30

Larunbata: 11:00-13:30 eta 16:00-19:30

Igandea: 11:00-13:30

Taldeentzat beste ordutegiak.

Sagardoa garai batean, arrantzale askoren bizi iraupeneko bermea zen. Edariaren C bitaminak hiltzetik salbatzen zituen hilabeteetarako itsasora arrantzara irteten ziren langileak.

Orain mende batzuk, base-rietan muztioa ekoizteko baliatzen zen dolareko egur puskak,

txalaparta inprobisatu gisa erabiltzen zituzten ekoizleek. Zertarako? Bi asmorekin; txalaparta jotzen ari zenak inguruko baserritarrei deiarra egin nahi zien, etxera etorri eta mosto goxoa dasta zezaten. Baina bada gaur egun musika tresna gisa erabiltzen dena, garai hartan mostoa egin asmoz, laguntza eskatzeko baliatzen zuenik ere.

[2. ORRIALDEAN JARRAITZEN DU]

Sahara herrira eramateko elikagaiak



Super Amara merkatalgunean bilketa sustatzen ari ziren bi kide.

Ikastetxeetan janari-bilketa amaitu eta gero, Andoaingo merkatalguneetan Sahara herriari laguntzeko azken egunak dira hauek.

Hilaren 30ean udal batzarrak Andoain eta Urnieta herrietan

Eskualdea

- Sagardoetxea museoa eskualdean. 2. or.
- Hip hop jaia, Txotx garaia. 14. or.

Andoain

- Ezker abertzalearen deialdia. 13. or.
- Okindegietan euskaraz ekimena. 13. or.

Gehigarri Berezia

- Martin Ugalde ipuin lehiaketaren azken edizioko saridunen lanak. I-VIII. or.

Agenda

- Kaldereroak, Inauteriak, ikastaroak eta lan deialdiak. 15. or.

theys edergintza

La Salle etorbidea, 10
Tel.: 943 593 728
Andoain

Elkano, 1-1 esk.
Tel.: 943 420 441
Donostia

FOTO
depilazioa

Depitotal

Fotodepilazioa
Fotogaztetzea
Akne fototerapia

• Izterrondoa + besapea 99 €

Urtarrilaren 31ra arte

